

2. Komunikazioa eta lankidetzak

2.4. Netiketa:

2.4.1. Portaera sarean

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

Komunikazioa eta
lankidetzaz.
Netiketa

Portaera sarean




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau amaitzean, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



Sare sozialen eta Interneten erabilera egokia ezagutzea.

Ziurtatu zure nortasun digitala adeitsua eta errespetuzkoa dela.

Sareko baliabideak arduraz erabiltzea.

LABURPENA

- Netiketaren definizioa
- Arau orokorra
- Foroei eta postei buruzko arau zehatzak
- Txaterako arauak
- Netiketa gaztea: sare sozialak

NETIKETA: Portaera multzoa

Interneteko komunitatea milaka milioi pertsonen osatzen dute. Komunitate honetan integratzeko, zenbait portaera onartu eta erabili behar dira. Arau multzo horri deitzen diogu **NETIKETA**. Internautek bultzatzen dute, webguneko bizikidetzeta eta, halaber, mundu birtuala atseginagoa eta seguruagoa izatea errazteko.

Netiketa
Frantsesez erabiltzen den *netiquette* hitzetik dator. Frantsesezko *étiquette* (etiketa) eta ingelesezko net (sarea) loturatik. Termino hori 1995ean zabaldu zen Request for Comments 1855, The Internet Engineering Task Force (IETF) enpresak idatzitako "Netiketak Guidelines" argitalpenetik.


Pertsonetikiko topaketa fisikoetarako protokolo bat dagoen bezala, "kontaktu" elektronikoa egitean erabili behar den protokoloa deskribatzen du Netiketek.

PORTAERAREN OINARRIZKO ARAUAK INTERNETEN

Edozein komunikabidetan gizarte-portaerari buruzko gomendio nagusia honakoa da, **ez egin zuri egitea gustatuko ez litzaizukeenik.**

Arau hau edozein esparrutan aplika daiteke.

Netiketak arau batzuk ditu, eta arau simple batzuetan laburbil daitezke: arau orokorrak, foro eta post-etarako arauak, txat-erako arauak eta sare sozialetarako arauak.



Netiketa Mundu Erreala ez den ingurune batean gure harremanari **ZENTZUA** aplikatzea da.



ARAU OROKORRAK



- **1. Araua:** Ez ahaztu mezua irakurtzen duen beste pertsonak sentimenduak dituela eta sentimendu horiek mindu daitezkeela.
- **2. Araua:** Sarean ere, eutsi bizitza errealean jarraitzen dituzun portaera estandarrei.
- **3. Araua:** Dena letra larriz idaztea oihu egitea bezala da, eta gainera, irakurketa zailtzen du.
- **4. Araua:** Errespetatu beste pertsona batzuen denbora eta banda-zabalera.
- **5. Araua:** Erakutsi zure alde ona, linean zauden bitartean.



ARAU OROKORRAK

- **6. Araua:** Partekatu zure ezagutzak komunitatearekin.
- **7. Araua:** Eztabaidak giro osasuntsu eta hezitzailean mantentzen lagundu.
- **8. Araua:** Errespetatu hirugarrenen pribatutasuna.
- **9. Araua:** Ez egin gehiegikeriarik zure ahalmenaz edo izan ditzakezun abantailek baliatuz.
- **10. Araua:** Besteen akatsak barka itzazu. Besteen akatsak ulertu, besteek zureak ulertzea espero duzun bezala.

Arau horiek bitan laburbildu daitezke: beste pertsona baten lekuan jarri eta zu bezalakoa ez dela pentsatu.





FOROETARAKO ETA POSTA-GUNEETARAKO ARAUAK

- **1. Araua:** Pentsatu nori bidaltzen diozun mezua, nork irakurri behar duen: Guztiek edo kide batzuk bakarrik. Azken kasu horretan hobe posta edo mezu pribatua erabiltzea.
- **2. Araua:** Gaiaren arabera foro egokia erabili. Horrela, lotura duen informazioa batera biltegiratuko da eta azkarrago kokatu.
- **3. Araua:** Ez ahaztu mezuaren gaia. Deskribatzailea eta zehatza.
- **4. Araua:** Egokitu ingurunera. Zaindu ulermena eta luzera.
- **5. Araua:** Ez erabili gehiegi koloreak, emotikonoak etab. Emotikonoak ongi daude laburtzeko, baina gehiegi erabiltzea nekagarria izan daiteke.





FOROETARAKO ETA POSTA- GUNEETARAKO ARAUAK

- **6. Araua:** Jakinarazi fitxategi erantsi bat bidaltzen duzunean, esan ezean, baliteke fitxategia hor dagoela ez konturatzea. Saiatu tamaina txikiko eranskinak bidaltzen.
- **7. Araua:** Beharrezkoa ez den iruzkinik ez bidali. Adibidez, ekarpen pertsonalik egiten ez duen “ados nago pertsona horren iruzkinarekin” bezalako iruzkinak.
- **8. Araua:** Erantzun beti jasotako mezuei. Garrantzitsua da bidalitako informazioa jaso duzula jakitea.
- **9. Araua:** Ez galdetu jada landu den gai bati buruz, barne-bilatzailea erabili.
- **10. Araua:** Gaiaz aldatzean, ziurtatu mezuaren gaia ere aldatzeaz edo mezu berri bat sortu.



TXATETARAKO ARAUAK

- **1. Araua:** Ezagutu parte hartuko duzun txata, bere gaiak eta arauak.
- **2. Araua:** Mundu errealean bezala lehenengo urratsa aurkeztea da. Izen egokia erabili.
- **3. Araua:** Agur labur bat erabili sartzean eta agurtu ateratzean, era motz eta zuzen batean.
- **4. Araua:** Saihestu galdera jarraiak, luzeegiak diren testuak eta ez errepikatu esaldi berbera.
- **5. Araua:** Ez itxaron mezu guztia idatzia izan arte bidaltzeko, denbora galtzea eta besteen urduritzea saihestuko duzu.
- **6. Araua:** Une batez kanpora bazoaz, adierazi, eta bueltatzen zarenean mezu labur batekin jakinarazi.
- **7. Araua:** Gainerakoen idazteko abiadurarekin pazientzia izan, edo ez ezazu espero zure galderei erantzun azkar bat.





SARE SOZIALETARAKO ARAUAK


NETIKETA GAZTEAK, sozializazio intentsiboko ingurune berrietan online esperientzia hobetzea du helburu. Ziberbizikidetzan hobetzen eta gatazkak ekiditen laguntzen du, komunitatekoa izatearen sentimendua indartzen. Azken batean, **herritartasun digital aktiboa** erabili eta eraikiz, gizabanakoen eta taldeen eskubide eta betebeharren ezinbesteko berme izateko helburua du.





SARE SOZIALETARAKO ARAUAK

- Etiketatu aurretik baimena eskatu.
- Erabili etiketak modu positiboan.
- Kritika publikoak ondo neurtu.
- Ez dago arazorik adiskidetasun-eskaerak ukatzearekin.
- Spam-en salaketa bidegabea saihestu
- Salaketa-aukerak justifikatuta dagoenean erabili.
- Galdetu zure buruari beste pertsoneri buruz zer informazio jartzen duzun.
- Beste pertsona batzuk etiketatu baina beti ere engainurik gabe.



Sare sozialetarako
Netiketa Gaztea Twitter,
Facebook, Hi5,
Bebo... bezalako sare
sozialak erabiliz
gozatzen duten nerabe
eta gazteentzat
pentsatuta dago



SARE SOZIALETARAKO ARAUAK

- Ez argitaratu beste pertsonen argazki edo bideorik baimenik gabe
- Pribatua den zerbait jasotzean, argitaratu aurretik, galdetu.
- Besteen pribatutasunaren errespetua erraztu.
- Gogoratu dena letra larriz idaztea GARRASI egitea dela.
- Erabili emotikonoak, irudiak, sinboloak, etab. hobeto adierazteko.
- Gogaitzen zaituen zerbaiten aurrean, lasai!
- Besteei errespetuz hitz egin, kontutan izan ingurune publiko batean zaudela.
- Sare sozial bakoitza erabiltzeko arauak irakurri eta errespetatu (Facebook, Twitter...).

GEHIAGO JAKITEKO...

- <http://www.pantallasamigas.net/netiqueta-joven-para-redes-sociales-ciudadania-digital-y-ciberconvivencia/>
- <http://www.rfc-editor.org/rfc/rfc1855.txt>



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu